

TTAKUN (H)ERRENKA

Uda

U

da harro hasi da, gehiegi estutuz agian, baina denak beroa dela eta kezaka ari direnean, ez dut guztiz sinesten; metroan izerdi patsetan ere –edo batez ere–, begiradak irrist egiten du goizeko sei eta erdietan ere keinu arinez luzitzen dugun arroparen ezintasunetan zehar, eta aurten gutxi –bat ere ez– ibiliko ditudalako agian, ordu txikitari txosnatan ehun pisutsurik gabe, dantzan, eta dantza mugimendugatik sortzen den brisara epelaren mira sentitzen dut.

Beñat, zure proposamena nire eszenan nahiko antyklimatikoa suertatzen da: Alaitz eta Maider? Saiatu naiz ulertzen zergatik jarri nahi dizkiezun halako oztopoak nerabeen hormonazko pasioei, eta, esatera noanak min handia egiten dit: *nire garaiaz* gogoratzen saiatu naiz (udan, pena da beti nerabeago ez izatea), ea Alaitz eta Maiderrekin izandako ligeren bat konta nezakeen edo. Eta bale, onartu beharko nuke, *Txanogorritxurena* entzungo banu adibidez, niri ere irribarretxo tontoren bat irtengo zitzaidala beharbada. Baina, bat edozer onartzeko prest dago kontua biografia baten puncha salbatzea denean. Eta uste dut, nire sedukzio gaitasun lehendik mugatuek arrakasta aukera handiagoa luketela Shakirarekin, Alaitz eta Maiderrekin saltoka baino, saltoka baino.

Udalekuetara dagoeneko haur moduan ez, sukaldera joaten nintzenean (honek kontatzen du erasmus bezala?), Ken Zazpi zen neskatoren artean Bisbali konpetentzia egiten zion bakarra, letrak filosofikoak baziren, Bisbalenen neurrira zirela agian, (agian). Gaia aldatuz, edo ez hainbeste, nor litzateke iraindua baieztapen/konparaketa horretan, Ken Zazpi edo Bisbal?

DANI BLANCO



Uxue Apaolaza



Padrón



Sarasola

Naturaltasunez hartzen dugu gure famatuen inguruan, hala balira bezala hitz egitea? Izan daiteke euskal artista bat artista arina, komertziala eta halakotzat onartua? Espektakuluak sortzen duen produktu bat gehiago bezala? Edo Juanjo Olasagarrek *Deian* seinalatzen zuen eran, guztiari sinbolo kategoria ematen diogu? Eta sinboloz gehiegi hornitzen denari elizak erakutsi du behin baino gehiagotan umorea nola ozpintzen zaion. Gogoan dut Xabier Larrañagaren zutabe bat, Xabier Lete hil zenekoa, zeinetan figuraren inguruko eraikuntza sinboliko faltsua seinalatzen zuen, eta hargatik jaso zituen isekak, Beñat, zuk ezker abertzalea (ezker abertzaleko zenbait, oso gutxi, bat edo bi) kritikatzegatik jasoak, laztanaren mailan uzten dituzte. Eta hain gauza sinbolikoek ez dute balio txosnan alberdanian ibiltzeko.

Ramon Saizarbitoritari Arantxa Iturbek eginiko elkarrizketan (zorionak) komentatzen zuen idazleak, iruditzen zitzaiola beharbada Euskal Herrian *Telecincok* izaten duen audientzia nabarmen altuen azalpena izan litekeela telezabor propiorik ez izatea (ez dut gustuko telezabor hitza, zehaztasuna falta zaio, Piquerasen informatiboak adibidez ez baitakit seinalatzen dituen). Eta txutxumutxuz harago, euskal guztiaren balio gorenak uzten digu pertsonaiaren proiektzio publikoa eta beraren kausak publikoki aztertzen? Ez dugu behar dagoeneko, gure “gizartea eta jendea” sailen bat, saraoetako sekretutxoak –trapu zikinak, arrosak eta beltzak– kontatzeko? Orain udan gainera, poesia egunak eta txosna dantzak hainbeste konfunditzen gaituzten honetan. ■



Beñat, zure proposamena nire eszenan nahiko antyklimatikoa suertatzen da:

Alaitz eta Maider? Saiatu naiz

ulertzen zergatik jarri nahi dizkiezun

halako oztopoak nerabeen

hormonazko pasioei

